Errepresiorik ez, atxilotuekin elkartasuna

LA HAINE EUSKAL HERRIA :: 27/07/2022

JARDUN koordinadoraren parte den ASKE antolakundeak mobilizazioa burutu du Gasteizko Alde Zaharreko kaleetan barrena.

[Euskara]

JARDUN koordinadoraren parte den ASKE antolakundeak mobilizazioa burutu du Gasteizko Alde Zaharreko kaleetan barrena. Hasiera batean kontzentrazioa izan behar zenak mobilizazio gisa bukatu du Alde Zaharreko 'Kutxi' kalean zehar, Burulleria plazan bukatuz.

Mobilizazioan zehar "Ez, ez ez errepresiorik ez" eta "Atxilotuekin elkartasuna" oihuen artean manifestazioa burutu du ASKE-k, hain zuzen ere, desitxuratutako igandeko gertakariak emandako kaleetan barrena. Mobilizazioa bukatutakoan, ASKE-ko kide batek igandean jazotako gertakarien inguruan espainar estatu burgesaren partetik emandako desitxuraketa eta intoxikazioa salatzearekin batera, elkartasuna adierazi die jazartutako hiru gazteei. Era berean, irudietan ikus daitekeen bezala, aipagarria da zipaioen partetik emandako jarrera probokatzailea. Izan ere, hauek Farolonera enkaputxatuta gerturatu diren unetik elkartasuna adieraztera bertaratutako pertsonak grabatu dituzte era jarraian.

ASKE-k hedabide honi helarazi dionaren arabera, igandean gertatutakoaren eta hedabideetan plazaratutako informazioaren arteko aldea nabarmena da. Izan ere, igandean tabernako eztabaida bat izatetik haratago, ez zen bestelako gertakari aipagarririk gertatu. Hala, gerora jazotako guztia Mutrikuko jaietako eszenifikazioaren jarraipen gisa jo du antolakundeak.

Atxilotutako 3 gazteak oraindik epailearen aurretik igarotzearen zain daude, euren aurkako kargu irmorik aurkeztu gabe aske geratu direlarik. Era honetan, espainiar gobernua eta bere morroia den gobernu autonomikoa izaera zipaioko indar polizialen zilegiztatze eta normalizaziorako kanpaina burutzen ari dira. Ildo horretatik, antolakunde antierrepresitibotik Euskal Herri Langileak jazarpenari aurre egiteko duen bide bakarra antolakuntza dela jo dute.

ATXILOTUEKIN ELKARTASUNA!

[Castellano]

Errepresiorik ez, atxilotuekin elkartasuna.

La organización ASKE, que forma parte de la coordinadora JARDUN, ha realizado hoy una movilizacion por las calles del Casco Viejo de Gasteiz. Lo que en principio era una concentración ha terminado siendo una manifestación por la calle Cuchilleria del Casco Viejo, que ha acabado en la plaza Burrulleria.

Durante la movilización organizada por ASKE se han lanzado gritos de “Ez, ez ez errepresiorik ez” y “Atxilotuekin elkartasuna”, en las mismas calles, de hecho, donde sucidieron los hechos manipulados del domingo. Al terminar la manifestación, un militante de ASKE ha denunciado la intoxicación y manipulación de los hechos ocurridos el domingo por parte del estado burgués español, además de expresar su solidaridad hacia los tres jóvenes detenidos. Asimismo, como se puede ver en las imágenes de la movilización, cabe mencionar la actitud provocadora de los Zipayos, ya que desde el inicio han estado encapuchados y grabando a la gente que se había acercado a expresar su solidaridad.

Como ASKE ha comunicado a este medio, hay una gran diferencia entre el relato de los medios y los hechos ocurridos el domingo, ya que más allá de una discusión de bar no ocurrieron más hechos destacables. De este modo, la organización interpreta todo lo acontecido después como una continuación del relato construido sobre los hechos ocurridos en fiestas de Mutriku.

Los tres jóvenes están a la espera de comparecer ante el juez, después de ser puestos en libertad sin conocer los cargos de los que se les acusa. De este modo, el gobierno español y su lacayo el gobierno autonómico están llevando a cabo una campaña que busca la legitimidad y normalización de las fuerzas policiales zipayas. En esta línea, la organización antirrepresiva reivindica la organización como única respuesta ante la represión.

ATXILOTUEKIN ELKARTASUNA!

---

https://eh.lahaine.org/errepresiorik-ez-atxilotuekin-elkartasuna